

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 9/2021 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, abenduaren 28koa Onestea alda daitezela Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 19ko 12/1993 Foru Dekretu Arauemailea eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko martxoaren 31ko 11/2003 Foru Araua**

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Itun Ekonomikoa maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak onetsi zuen. Itunaren 26. artikulua xedatzen du balio erantsiaren gaineko zerga zerga itundua dela, eta Estatuak aldi bakoitzean xedatzen dituen funtsezko arau substantibo eta formal berak aplikatuko zaizkiola.

Duela gutxi azaroaren 2ko 24/2021 Errege Lege Dekretua onetsi da; horren bidez Europar Batasunak zenbait gairi buruz eman dituen zuzentarauen transposizioa egin da: bermatutako bonoak, inbertsio kolektiboko entitateen mugaz gaindiko banaketa, datu irekiak eta informazioa berrerabiltzea sektore publikoan, egile eskubideak eta lineako transmisio batzuei eta irratiko eta telebistako saioren emanaldiei aplikatu ahal zaizkien horren antzeko eskubideak erabiltzea, inportazio eta hornidura jakin batzuen, kontsumitzaileen eta errepideko garraioa ibilgailu garbi eta energetikoki efizienteen aldi baterako salbuespenak. Errege lege-dekretu horren bidez Kontseiluaren uztailaren 13ko (UE) 2021/1159 Zuzentaraua txertatzen da ordenamendu juridikoan balio erantsiaren gaineko zergari dagokionez (zuzentarau honek 2006/112/EE Zuzentaraua aldatzen du zenbait inportazio eta horniduraren aldi baterako salbuespenari dagokionez COVID-19 pandemiari erantzuteko). Zuzentarau honen xedea da gaur egun Kontseiluaren 2006ko azaroaren 28ko 2006/112/EE Zuzentarauak balio erantsiaren gaineko zergaren baterako sistemaren barruan eragiketa batzuei ematen dien salbuespena zabaltzea COVID-19 pandemiari erantzuteko; hona eragiketak: Europar Batasunaren alde, Energia Atomikoaren Europako Erkidegoaren alde, Europako Banku Zentralaren alde, Europako Inbertsio Bankuaren alde edo Batasunak sortutako erakundearen alde erabilera ofizialerako egiten diren ondasun inportazioak eta ondasun eta zerbitzu emateak, Batzordeak edo Batasunaren Zuzenbidearen arabera sortutako organo edo erakunde batek, bere egitekoetan ari dela, ondasunak edo zerbitzuak eskuratzea COVID-19aren pandemiari aurre egiteko, baldin eta Batzordeak edo salbuespenaren onura jasotzen duen erakundeak inportatzen diren ondasunak edo eskuratzen diren ondasunak eta zerbitzuak gero ez baditu erabiltzen beste inori kostu bidez emateko.

Horrela bermatzen da Europar Batasunak horretarako abian jarritako ekinaldietan ezarritako neurrien aplikazioa ez eragozteko ondasun eta zerbitzu horien eskuratzeak jasaten duten balio erantsiaren gaineko zergaren kargak, kendu ezin denak, hain zuzen ere, hots, Batasunaren erakunde horiek gero berreskuratu ezin dutenak.

Beste alde batetik, transposizioa egiten ari den zuzentarauak ezartzen dituen salbuespenak atzeraeraginez aplikatu beharko dira, 2021eko urtarrilaren 1az geroko atzeraeraginez, hain zuzen, eta ez dute edukiko mugaegunik, eskuratzeak pandemiaren aurkako borrokarekin lotuta egonez gero.

Gainera, salbuespen berria ezartzen da ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan: salbuetsita dago bermatutako bonoak eta hipoteka partaidetzak eta hipotekaren eskualdaketen ziurtagiriak jaulkitzea, eskualdatzea, amortizatzea eta ordaintzea, eta konkurtsoan dauden entitateen ondare bereziaz eratzeko aktiboak eskualdatzea eta mailegua beste kreditu entitate batera eskualdatzea jaulkipenak batera finantzatzeko (eragiketa horiek guztiak 24/2021 Errege Lege Dekretuan arautzen dira).

Ekonomia Itunaren 26. artikuluan xedatzen dena bete behar denez gero, eta kontuan edukita noiz hasi diren ondorioak sortzen egindako aldaketek, ezinbestekoa da egiteko honi ahalik azkarren heltzea.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak honetaz emandako txostena aztertu da.

Horren ondorioz, Diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur egin duen bileran gaia aztertu ondoren, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergenak, 8. artikuluan eta abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoarenak, ematen dizkidaten eskumenez baliatuz, presako arrazoiak direla eta, hona hau,

#### XEDATZEN DUT

### **1. artikulua. Aldaketa: 12/1993 Araugintzako Foru Dekretua, urtarrilaren 19koa, balio erantsiaren gaineko zergari buruzkoa**

Zenbait aldaketa egiten dira Balio erantsiaren gaineko zergaren urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuan. Aldaketa hauek 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko dituzte ondorioak.

Bat. 22. artikulua bederatzigarren apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da:

“Bederatzi. Espainiak aintzatetsitako nazioarteko erakundeentzako eta erakunde horietan estatutu diplomatikoarekin lanean ari diren pertsonentzako ondasun emateak eta zerbitzugintzak, erakundeok sortu dituzten nazioarteko itunetan edo kasu bakoitzean aplikatu beharreko egoitza akordioetan ezartzen diren mugekin eta baldintzekin.

Hain zuzen ere, apartatu honetan sartuko dira Europar Batasunarentzako, Energia Atomiakoaren Europako Erkidegoarentzako, Europako Banku Zentralarentzako, Europako Inbertsio Bankuarentzako ondasun emateak eta zerbitzugintzak, eta Europako erkidegoen pribilejioei eta immunitateei buruzko 1965eko apirilaren 8ko Protokoloa aplikatzen zaien Europako erkidegoetako erakundeentzakoak, Protokoloan eta hura aplikatzeko akordioetan eta egoitza akordioetan ezarritako mugen barruan eta bertako baldintzak beteta egiten direnak, baldin eta lehian distorsiorik sortzen ez bada.

Halaber, apartatu honetan sartuko dira Batzordeak edo Batasunaren Zuzenbidearen arabera sortutako organo edo erakunde batek, Batasunaren Zuzenbidearen arabera dauzkan egitekoetan ari dela, ondasunak edo zerbitzuak eskuratzea COVID-19aren pandemiari aurre egiteko, baldin eta Batzordeak edo erakundeak eskuratzen diren ondasunak eta zerbitzuak gero ez baditu erabiltzen beste inori kostu bidez emateko.”

Bi. 61. artikulua aldatzen da, eta hona nola geratzen da:

“61. artikulua. Nazioarteko erakundeentzako ondasunen inportazioak.

Zergaren kargatik salbuetsita daude Espainiak aintzatetsitako nazioarteko erakundeentzako eta erakunde horietan estatutu diplomatikoarekin lanean ari diren pertsonentzako ondasunen emateak eta zerbitzugintzak, erakundeok sortu dituzten nazioarteko itunetan edo kasu bakoitzean aplikatu beharreko egoitza akordioetan ezartzen diren mugekin eta baldintzekin.

Hain zuzen ere, zergaren kargatik salbuetsita daude Europar Batasunarentzako, Energia Atomiakoaren Europako Erkidegoarentzako, Europako Banku Zentralarentzako, Europako Inbertsio Bankuarentzako ondasunen emateak eta zerbitzugintzak, eta Europako erkidegoen pribilejioei eta immunitateei buruzko 1965eko apirilaren 8ko Protokoloa aplikatzen zaien Europako erkidegoetako erakundeentzakoak, Protokoloan eta hura aplikatzeko akordioetan eta egoitza akordioetan ezarritako mugen barruan eta bertako baldintzak beteta egiten direnak, baldin eta salbuespenak lehian distorsiorik sortzen ez badu.

Halaber, zergaren kargatik salbuetsita dago Batzordeak edo Batasunaren Zuzenbidearen arabera sortutako organo edo erakunde batek, Batasunaren Zuzenbidearen arabera dauzkan egitekoetan ari dela, ondasunak inportatzea COVID-19aren pandemiari aurre egiteko, baldin eta Batzordeak edo erakundeak eskuratzen diren ondasunak gero ez baditu erabiltzen beste inori kostu bidez emateko”.

## **2. artikulua. Aldaketa: 11/2003 Foru Araua, martxoaren 31koa, ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari buruzkoa**

Zenbaki bat gehitzen zaio Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari buruzko martxoaren 31ko 11/2003 Foru Arauari 69. Bat. B) artikuluan, berrogeita hamabigarrena (2021eko azaroaren 4tik aurrera sortuko ditu ondorioak); hona testua:

“52.1. Azaroaren 2ko 24/2021 Errege Lege Dekretuan (horren bidez Europar Batasunak zenbait gairi buruz eman dituen zuzentarauen transposizioa egin da: bermatutako bonoak, inbertsio kolektiboko entitateen mugaz gaindiko banaketa, datu irekiak eta informazioa berrerabiltzea sektore publikoan, egile eskubideak eta lineako transmisio batzuei eta irratiko eta telebistako saioen emanaldiei aplikatu ahal zaizkien horren antzeko eskubideak erabiltzea, inportazio eta hornidura jakin batzuen, kontsumitzaileen eta errepedeko garraioko ibilgailu garbi eta energetikoki efizienteen aldi baterako salbuespenak) arautzen diren bermatutako bonoak eta hipoteka partaidetzak eta hipotekaren eskualdaketen ziurtagiriak jaulkitzea, eskualdatzea, amortizatzea eta ordaintzea.

2. Azaroaren 2ko 24/2021 Errege Lege Dekretuak (horren bidez Europar Batasunak zenbait gairi buruz eman dituen zuzentarauen transposizioa egin da: bermatutako bonoak, inbertsio kolektiboko entitateen mugaz gaindiko banaketa, datu irekiak eta informazioa berrerabiltzea sektore publikoan, egile eskubideak eta lineako transmisio batzuei eta irratiko eta telebistako saioen emanaldiei aplikatu ahal zaizkien horren antzeko eskubideak erabiltzea, inportazio eta hornidura jakin batzuen, kontsumitzaileen eta errepedeko garraioko ibilgailu garbi eta energetikoki efizienteen aldi baterako salbuespenak) 14. artikuluan ezartzen duenarekin bat etorritik, konkurtsoan dauden entitateen ondare berezia eratzeko aktiboak eskualdatzea eta mailegua beste kreditu entitate batera eskualdatzea jaulkipenak batera finantzatzeko.”

### AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean jartzea.

Xedapen orokor hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta artikuluetan ezartzen diren ondorioak sortuko ditu.

Bigarrena. Gaikuntza.

Arabako Foru Aldundiari baimena ematen zaio xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Hirugarrena. Batzar Nagusietara bidaltzea.

Zerga premiazko araugintzako dekretu hau Arabako Batzar Nagusiei aurkeztuko zaie, indarrean dagoen arautegian ezarritakoaren arabera berretsi edo baliogabetu dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abenduaren 28a

*Diputatu nagusia*  
**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Lehenengo diputatu nagusiordea eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua*  
**ITZIAR GONZALO DE ZUAZO**

*Ogasun zuzendaria*  
**MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA**